

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5471

AGINDUA, 2023ko azaroaren 14koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Lanpostuen Balorazio Batzordeko kide batzuk kargugabetzen baitira eta beste batzuk izendatzen.

Apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako Lanpostuen Balorazio Batzordea sortu zen, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari atxikitako organo gisa. Batzorde horren helburua da baloratzeko bidaltzen zaizkion lanpostuak aztertzea eta lanpostu bakoitzari balio bat ematea, atxikita dagoen antolamendu-egituraren barruan.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko abenduaren 21eko Aginduaren bidez, Lanpostuen Balorazio Batzordearen lehen osaera osatuko duten kideak izendatu ziren. Agindu hori hainbat aldiz aldatu da.

Administrazio Publiko eta Justiziako sailburuaren 2013ko irailaren 26ko Aginduaren bidez, Fulgencio Aledo Amorós jauna kide titular izendatu zen Administrazioaren ordezkartzan.

Administrazio Publiko eta Justiziako sailburuaren 2016ko maiatzaren 17ko Aginduaren bidez, Jesús Bañares Santin jauna ordezkari kide izendatu zen UGT sindikatuaren ordezkartzan.

Administrazio Publiko eta Justiziako sailburuaren 2016ko ekainaren 20ko Aginduaren bidez, Xabier Amatria Cuesta jauna kide titular izendatu zen ELA sindikatuaren ordezkartzan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko otsailaren 22ko Aginduaren bidez, Imanol Uriguen Garaizabal jauna ordezkari kide izendatu zen IVAPen ordezkartzan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko martxoaren 22ko Aginduaren bidez, Salvador Cuesta Cobo jauna kide titular izendatu zen CC.OO. sindikatuaren ordezkartzan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez, Jorge Ruiz de Azúa Gómez de Segura jauna ordezkari kide izendatu zen CC.OO. sindikatuaren ordezkartzan.

Fulgencio Aledo Amorós jaunak (Administrazioaren ordezkaria), Salvador Cuesta Cobo jaunak (CC.OO. sindikatuaren ordezkaria) eta Jesús Bañares Santin jaunak (UGT sindikatuaren ordezkaria) erretiroa hartu dutenez, eta Funtzio Publikoko sailburuordearen proposamena eta ELA, CC.OO. eta UGT sindikatuak ordezkari berriak izendatuta aurkeztutako jakinarazpenak kontuan hartuta, apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaren arabera sortutako Balorazio Batzordearen osaera eguneratzen da.

Hortaz, dekretu horren 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoa kontuan izanik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fulgencio Aledo Amorós jauna Lanpostuen Balorazio Batzordeko Administrazioaren kide titular kargutik kentzea, eta, haren ordezkari, Imanol Uriguen Garaizabal jauna izendatzea.

2023ko abenduaren 11, astelehena

Bigarrena.– Imanol Uriguen Garaizabal jauna Lanpostuen Balorazio Batzordeko Administrazioaren ordezkoko kide kargutik kentzea, eta, haren ordezkari, M.^a Carmen Camino Lertxundi andrea izendatzea.

Hirugarrena.– Xabier Amatria Cuesta jauna Lanpostuen Balorazio Batzordearen kide titular kargutik kentzea, eta, haren ordezkari, ELA sindikatuko Gorka Muñoz Villegas jauna izendatzea.

Laugarrena.– Salvador Cuesta Cobo jauna Lanpostuen Balorazio Batzordearen kide titular kargutik kentzea, eta, haren ordezkari, CC.OO. sindikatuko Jorge Ruiz de Azúa Gómez de Segura jauna izendatzea.

Bosgarrena.– Jorge Ruiz de Azúa Gómez de Segura jauna Lanpostuen Balorazio Batzordearen ordezkoko kide kargutik kentzea, eta, haren ordezkari, CC.OO. sindikatuko Teresa Vicuña Peñafiel andrea izendatzea.

Seigarrena.– Jesús Bañares Santin jauna Lanpostuen Balorazio Batzordearen ordezkoko kide kargutik kentzea, eta, haren ordezkari, UGT sindikatuko Juan José Córdoba Briones jauna izendatzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiokio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 14a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.